Prestakuntza-ekintza hori osatzeko, eta kontuan hartuta parte-hartzaile bakoitzaren espezialitatea eta Familia Profesionala, 80 orduko praktikak egin zituzten Euskadiko Lanbide Heziketako ikastetxeetan.

La formación se complementó, teniendo en cuenta la especialidad y Familia Profesional de cada participante, con 80 horas de prácticas en centros de Formación Profesional de Euskadi.



INTERREG POCTEFA – FORMA NAEN

Interreg POCTEFA lurralde-lankidetzako europar programako Forma NAEN proiektuaren erronka eta asmoa da mugaren alde bietan aitortutako gaitasunak barnertzea. Aipatutako programaren helburua da Espainia-Frantzia-Andorra espazioan integrazio ekonomikoa eta soziala bultzatzea.

Forma NAEN mugaz gaindiko proiektua da, Euroeskualdean lan-eskuari dagokionez defizitarioak diren sektoreetan mugikortasuna eta lanbideratzea sustatzera bideratuta dagoena, mugaz gaindiko errealitatera egokitutako berariazko eskaintza kualifikatu bat garatuta.

Proiektu horren barruan, lau ekintza garatzen dira:

El reto y la aspiración del proyecto Forma NAEN, del programa europeo de cooperación territorial Interreg POCTEFA, que tiene por objeto reforzar la integración económica y social en el espacio España-Francia-Andorra, es la adquisición de competencias reconocidas a ambos lados de la frontera.

Forma NAEN es un proyecto transfronterizo destinado a promover la movilidad y la inserción profesional en sectores deficitarios en mano de obra en la Euroregión, mediante el desarrollo de una oferta cualificada, específica y adaptada a las realidades transfronterizas.

En el marco de este proyecto se desarrollan 4 acciones:

1.

Mugaz gaindiko kudeaketa administratiboko modulu bat diseinatzea, profesional adituak hiru eskualdeetako lege-eta merkataritza-araudietan trebatuko dituen eta eskualde horien arteko lan- eta merkataritza-harremanak bultzatuko dituen.

Diseño de un módulo de gestión administrativa transfronteriza que forme a profesionales expertos en el manejo de las normativas legales y comerciales de las tres regiones y que promueva y facilite las relaciones laborales y comerciales entre dichas regiones.

2.

Gaitasunak baliozkotzea eta prestakuntzak ziurtatzea: automobilgintzaren sektorean lanbideratzea indartzea, baliokidetasunen azterketaren eta analisiaren bitartez; tituluak eta gaitasunak baliozkotzea; eta prestakuntzako eta mugikortasuneko esperientzia pilotu ziurtatu bat egitea.

Validación de competencias y certificación de formaciones: reforzar la integración profesional en el sector de la automoción, mediante el estudio y análisis de equivalencias; validación de títulos y competencias, y la realización de una experiencia formativa piloto y de movilidad certificada.





3.

Hizkuntza teknikoaren ikaskuntza: hizkuntza ezberdinetako hiztegi teknikoari buruzko ikastaroa diseinatzea eta sortzea, administrazio-kudeaketako eta automobil-gintzako adarretarako.

El aprendizaje del lenguaje técnico: diseñar y crear un curso de formación de vocabulario técnico en los distintos idiomas y para las ramas de la gestión administrativa y la automoción.

4.

Parte hartzen duten ikastetxeetako ikasle eta irakasleei zuzendutako sentsibilizazio-ekintzak. Ikasleei dagokienez, Euroeskualdean garapen profesionalerako dituzten aukerak aztertuko dira. Irakasleei dagokienez, zeharkako printzipioak jorratuko dira: aukera-berdintasuna eta garapen jasangarria, jardunbide egokien inguruko jardunaldien bitartez.

Diversas acciones de sensibilización destinadas a estudiantes y docentes de los centros participantes. Con relación a los estudiantes, se analizarán las oportunidades de desarrollo profesional en la Euroregión. Con los profesores, se tratarán los principios transversales: la igualdad de oportunidades y el desarrollo sostenible a través de jornadas de buenas prácticas.

Nouvelle-Aquitaine-Euskadi-Nafarroa Euroeskualdeko erakundeek osatutako garapenerako lankidetzaren baten esku dago proiektu hori gauzatzeko; honako hauek hartzen dute parte: Chambre des Métiers et de l'Artisanat de Pyrénées Atlantiques, Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Saila, ZubiGune Fundazioa, Usurbilgo LHII ikastetxea, Ikaslan Gipuzkoa, TKNIKA eta Chambre Régionale de Métiers et de l'Artisanat de Nouvelle-Aquitaine.

Honako hauek ere hartzen dute parte proiektuan: Lycée des métiers Paul Bert, LGT Saint Dominique, Lycée Louis de Foix, Plaiaundi, Don Bosco, Elizondo Lanbide Eskola IIP, Donapea IIP Virgen del Camino IIP eta EEI institutuak.

La realización de este proyecto recae en un partenariado integrado por entidades de la Euroregión Nouvelle-Aquitaine, Euskadi, Navarra, mediante el que participa: Chambre des Métiers et de l'Artisanat des Pyrénées Atlantiques, Departamento de Educación del Gobierno de Navarra, ZubiGune Fundazioa, CIFP Usurbil LHII, Ikaslan Gipuzkoa, TKNIKA y la Chambre Régionale de Métiers et de l'Artisanat de Nouvelle-Aquitaine.

En el proyecto participan también: Lycée des métiers Paul Bert, LGT Saint Dominique, Lycée Louis de Foix, Plaiaundi, Don Bosco, CIP Elizondo Lanbide Eskola IIP, CIP Donapea, CI Virgen del Camino y el IVAC.

Interreg
POCTEFA
FORMA NAEN



INTERREG SUDOE – 3SqAir

Interreg Sudoe programako 3SqAir proiektuak eskualde-garapena bultzatzen du Europako hego-ekialdean, FEDER Funtzaren bitartez proiektu transnazionalak finantzatuta, eta ikasgelen barruko airearen kalitatea (IAQ ingelesez) bermatzeko espezializazio adimenduneko ekintza plan erkide bat diseinatzea da proiektuaren asmoa.

IAQ funtsezko faktorea da osasun publikorako eta, berriki, agerian gelditu da duen garrantzia, COVID-19aren pandemiagatik.

3SqAir (Sustainable Smart Strategy for Air Quality Assurance in Classrooms) proiektuaren helburua da hezkuntza-erakinetan IAQ optimoa ziurtatzeko estrategia bat garatzea, soluzio berritzaile, jasangarri eta adimendunak ezarrita: IAQ ekipo pasiboak edo aktiboak, karbono-emisio txikiko teknologiak, jokabide aldaketak...

Hauexek dira proiektuaren alderdirik garrantzitsuenetako batzuk:

- IAQ hobetzeko estrategia, alderdi teknikoetan ez ezik, faktore sozialetan ere zentratzea, hala nola erabiltzaileen jokabidean, ikasleak kontzientziatzeko eta haien parte-hartzea hobetzeko hezkuntza-jarduerak eskainiz.
- Beharrezkoa da lankidetzatza transnazionala SUDOE espazioaren alderdi kulturek, teknikoek eta legalek IAQ hobetzeko planen hedapenean duen inpaktua ebaluatzeko.

El proyecto 3SqAir, del Programa Interreg Sudoe que apoya el desarrollo regional en el suroeste de Europa mediante la financiación de proyectos transnacionales a través del Fondo FEDER, trata del diseño de un plan de acción común de especialización inteligente para garantizar la calidad del aire interior (IAQ en inglés) en las aulas.

La IAQ es un factor clave para la salud pública y recientemente su importancia se ha puesto de manifiesto con la pandemia de COVID 19.

El objetivo de 3SqAir (Sustainable Smart Strategy for Air Quality Assurance in Classrooms) es desarrollar una estrategia para asegurar una IAQ óptima en los edificios educativos, mediante la implementación de soluciones innovadoras, sostenibles e inteligentes que van desde equipos IAQ pasivos o activos, tecnologías baja emisión de carbono, pasando por cambios de comportamiento.

Algunos de los aspectos más importantes de este proyecto son:

- *Centrar la estrategia de mejora de la IAQ no sólo en los aspectos técnicos, sino también en los factores sociales, como el comportamiento de los usuarios, ofreciendo actividades educativas para concienciar y mejorar la participación de los estudiantes.*
- *Es necesaria la cooperación transnacional para evaluar el impacto de los aspectos culturales, técnicos y legales del espacio SUDOE en el despliegue de los planes de mejora de la IAQ.*



Horretarako, ikasgeletan IAQ bermatuko duen RIS3 estrategia bat ezarriko du 3SqAir proiektuak, horietarako esparru metodologiko bat, kontzientziatzeko kanpainak, jardunbide onenen web-plataforma bat eta kode eta hardware irekiko IoT plataforma bat eskainiz, eta adituen komunitate bat sortuko da, aktore ezberdinentzako teknologia- eta balio-transferentzia sortuko duena.

Bazkideak

ZUBIGUNE Fundazioa (Espainia) - Euskal Herriko Unibertsitatea - Arkitektura Departamentua (Espainia) - IKERLAN Zentro Teknologikoa (Espainia) - ERAIKUNE, Euskadiko Eraikuntzaren Klusterra (Espainia) - Lisboako Unibertsitateko Goi-mailako Institutu Teknikoa (IST) (Portugal) - Coimbrako Unibertsitatea - Ingeniaritza Mekanikoko Departamentua (Portugal) - CEREMA, Arriskuen, Ingurumenaren, Mugikortasunaren eta Plangintzaren Azterketa eta Esperientzia Zentroa, Sud-Ouest Lurralde Zuzendaritza (Frantzia) - CATIE, Akitaniako Informazio-teknologiaren eta Elektronikaren Zentroa (Frantzia) - GREASE, ingurumen-diseinuko eta saneamenduko bulegoa (Frantzia).

Elkartekideak

EAGI LHII, Lanbide Heziketako ikastetxe bateratua –Garapen jasangarria eta eraikuntza adimenduna– (Espainia) - Nafarroako Gobernuak Lanbide Heziketako Zuzendaritza Nagusia (Espainia) - Lanbide Heziketako Usurbil LHII ikastetxe bateratua (Espainia) - Biodonostia, Osasun arloko lkerkuntzen Institutua (Espainia) - Valladolideko Unibertsitatea, Arkitektura eta Energia Departamentua (Espainia) - Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza Sailburuordetza (Espainia) - Energia Berriztagarrien Imarkoingo Goi-mailako ikastetxe bateratua (Espainia) - Hautes Pyrénées-eko Departamentu Kontseilua (Frantzia) - NeoCampuseko interes zientifikoko taldea (Frantzia) - Gironde-ko Departamentu Kontseilua (Frantzia) - Coimbrako Unibertsitateko Medikuntza Fakultatea (Portugal) - Alamedako Goi-mailako Institutu Teknikoko Campusa (Portugal) - Lisboako Goi-mailako Institutu Teknikoko Pessoa elkartearen hartzaindegia (Portugal) - REHVA, berogailuekin, aireztapenarekin eta aire girotuarekin lotutako elkarten federazioa (Belgika) - AIVC, energiari dagokionez aireztapen eraginkorri buruzko Energiaren Nazioarteko Agentziaren informazio-zentroa (Belgika) - TTMT - berotze- eta aireztapen-sistematan, aire girotuko sistematan eta iturgintzan eta isolamenduetan segurtasuna hobetzera bideratutako zerbitzuak garatzeko Gobernu Kanpoko Erakundea.

Para ello 3SqAir establecerá una estrategia RIS3 que garantice la IAQ en las aulas, proporcionando un marco metodológico para las mismas, campañas de concienciación, una plataforma web de mejores prácticas y una plataforma IoT de código y hardware abierto y se creará una comunidad de expertos que creará transferencia de tecnología y valor para los diferentes actores.

Socios

Fundación ZUBIGUNE (España) - Universidad del País Vasco - Departamento de Arquitectura (España) - Centro Tecnológico IKERLAN (España) - ERAIKUNE, Clúster de la Construcción del País Vasco (España) - Instituto Técnico Superior (IST) de la Universidad de Lisboa (Portugal) - Universidad de Coimbra - Departamento de Ingeniería Mecánica (Portugal) - CEREMA, Centro de Estudios y Experiencia en Riesgos, Medio Ambiente, Movilidad y Planificación, Dirección Territorial Sud-Ouest (Francia) - CATIE, Centro de Tecnologías de la Información y Electrónica de Aquitania (Francia) - GREASE, oficina de diseño ambiental y saneamiento (Francia).

Socios asociados

Centro Integrado de Formación Profesional (CIFP) Desarrollo sostenible y construcción inteligente, EAGI LHII (España) - Dirección General de Formación Profesional del Gobierno de Navarra (España) - Centro Integrado de Formación Profesional (CIFP) Usurbil LHII (España) - Instituto de Investigaciones Sanitarias Biodonostia (España) - Universidad de Valladolid, Departamento de Arquitectura y Energía (España) - Viceconsejo de Vivienda del Gobierno Vasco (España) - Centro Superior Integrado de Energías Renovables en Imarcoain (España) - Consejo Departamental de Hautes Pyrénées (Francia) - Grupo de interés científico del NeoCampus (Francia) - Consejo Departamental de Gironde (Francia) - Facultad de Medicina de la Universidad de Coimbra (Portugal) - Campus del Instituto Técnico Superior de Alameda (Portugal) - Guardería y jardín de infancia de la asociación Pessoa del Instituto Técnico Superior de Lisboa (Portugal) - REHVA, federación de asociaciones europeas de calefacción, ventilación y aire acondicionado (Bélgica) - AIVC, centro de información de la Agencia Internacional de Energía sobre ventilación energéticamente eficiente (Bélgica) - TTMT - ONG para el desarrollo de servicios orientados a mejorar la seguridad en calefacción, ventilación, aire acondicionado, fontanería y aislamiento.

Interreg

Sudoe

European Regional Development Fund



EUROPEAN UNION

MIGRANTS TAKE CARE – ERASMUS +

2020. hau urte zaila izan da proiektu honetan aurrera egiteko, batez ere COVID-19ak horrenbeste kaltetu duen sektore honetan. Hala ere, proiektuan bazkide diren herrialdeetako konfinamenduen esperientziarekin, argi gelditu da gure zaharren zainketa gure bizitzaren alderdi guztietan txertatuta dagoela.

Zainketa-lan horiek soldata txiki baten truke eta kontraturik gabe egiten dituzte migratzaileek batez ere, haien jatorriko herrialdean eskuratutako ziurtagiri akademikoaren homologaziorik ez dutelako edo inoiz ez dutelako jaso pertsonak zaintzeko lanerako prestakuntza formalik.

2020 ha sido un año complicado para avanzar en las actividades de este proyecto, sobre todo en este sector tan afectado por el COVID-19. Sin embargo, de la experiencia de los distintos confinamientos en los países socios del proyecto, ha quedado patente que el cuidado de nuestros ancianos está integrado en todos los aspectos de nuestra vida.

Estos cuidados los realizan mayoritariamente personas migrantes con baja remuneración y sin contrato, bien porque carecen de la homologación del certificado académico obtenido en su país de origen o porque nunca han recibido formación formal para el trabajo en el cuidado de las personas.





Zoritxarrez, ez dago kualifikazio-maila txikia duten zaintzaile migratzaileek eskura lezaketen oinarriko prestakuntza-mailako formalki onartutako kualifikaziorik (MEC, 1. Maila). Horregatik, proiektuko lantaldeak erabaki zuen kualifikazio horren deskribapena diseinatzea, ECVET metodologia erabili; metodologia horrek ikaskuntzaren emaitzen transferentzia, onarpena eta metaketa sustatzen ditu.

Horretarako, egoitzetan eta, batez ere, etxetan adineko pertsonak zaintzen dituzten eta aurrez deskribatutako profila duten migratzaileek landu beharreko gaitasun-arloak hartzen dituzten hamaika unitate definitu ziren.

Migrants Take Care Europako Batzordeak Erasmus+ Programaren barruan finantzatzen laguntzen duen proiektua da, eta bere helburua da ingurune gizarte-egoera ahuleko inguruneetatik datozen eta hezkuntza-maila txikia duten migratzaileen gizarteratzea eta lan-munduratzea hobetzea; jomuga den migratzaile-talde horrek etxez etxeko laguntza-zerbitzuen sektorean enplegua aurkitzeko aukerak hobetu nahi ditu, kultura-, hizkuntza- eta lanbide-prestakuntzaren bitartez.

Honako hauek dira proiektuko bazkideak: ZubiGune Fundazioa (Iberrra), fitt gGmbH (Alemania); Widening Participation (Grezia); European Institute for Local Development (Grezia), CESIE (Italia), Belfast Met (Erresuma Batua).

Desafortunadamente, no existe ninguna cualificación formalmente reconocida de un nivel de formación básico (Nivel 1 del MEC) a la que puedan acceder los y las cuidadoras migrantes con baja cualificación. Es por eso que el equipo del proyecto decidió diseñar la descripción de dicha cualificación, utilizando la metodología ECVET, que promueve la transferencia, el reconocimiento y la acumulación de los resultados del aprendizaje.

Para ello se definieron once unidades que abarcan las áreas de competencia a abordar por los migrantes que atienden a personas mayores en entornos de atención residencial y sobre todo, a domicilio y que tengan el perfil descrito anteriormente.

Migrants Take Care es un proyecto cofinanciado por la Comisión Europea dentro del Programa Erasmus +, que tiene como objetivo mejorar la inclusión socio-laboral de las personas migrantes procedentes de entornos especialmente desfavorecidos y con bajo nivel educativo, que desean mejorar sus oportunidades de encontrar empleo en el sector de los servicios de ayuda domiciliar mediante la formación cultural, lingüística y profesional.

Los socios de este proyecto son: ZubiGune Fundazioa (líder), fitt gGmbH (Alemania); Widening Participation (Grecia); European Institute for Local Development (Grecia), CESIE (Italia), Belfast Met (UK).

ENERGYDUCATION – ERASMUS +

COVID-19aren pandemiaren ondoriozko konfinamenduek eragindako eskoletako online bidezko ikaskuntzak proiektu honetako bazkideei erakutsi zien asmatu egin zutela MOOC formatuko (Massive Open Online Course) online bidezko ikastaroa sortuta –2009ko lankidetzaren emaitza–, horri esker prest baitzeuden 2020ko “homeschooling”-erako.

Urtebeteko pandemiaren ondoren, proiektu honetako bazkide batzuek –hala nola Münster School of Vocational Education (Alemania), Alfa-College (Holanda) eta Lulea Kommun (Suedia) ikastetxeek– eskola gehienak online formatuan ematen jarraitzen dute. Beraz, Europako lanbide heziketako erakundeen arteko “berrikuntzarako lankidetzak” horrek aukera eman digu herrialde bazkide bakoitzean erabiltzen diren online bidezko irakaskuntza-metodoak eta teknika ezberdinei buruzko etengabeko elkartruke bat sortzeko.

El aprendizaje online en las escuelas, motivado por los confinamientos derivados de la pandemia de COVID-19, demostró a los socios de este proyecto que la creación del curso online en formato MOOC (Massive Open Online Course), fruto de su cooperación en 2019, fue un acierto pues les hizo estar preparados para el “homeschooling” en 2020.

Tras un año de pandemia, varios socios de este proyecto, como la Münster School of Vocational Education (Alemania), Alfa-College (Holanda) o Lulea Kommun (Suecia) siguen impartiendo las clases principalmente en formato online. Por lo tanto, esta “cooperación para la innovación” entre entidades de formación profesional europeas nos ha permitido generar un intercambio continuo sobre las diferentes técnicas y métodos de enseñanza online en cada país socio.



2019an garatutako online modulua ezartzeaz gain, erronketan oinarritutako ikaskuntza-metodoa ezartzeko moduari buruzko irakasleentzako eskuliburua ere egin zen; metodo hori prozesu ebolutibo gisa ulertzen da, eta prozesu horretan ikasleak dira gaitasunak eskuratzeko bidearen arduradunak eta protagonistak.

2020an, bazkide diren eskoletako ikasleen arteko lehiaketa bat ere egin zen. Erronka zen, Smart Energy teknikak erabilita, eskola-eraikin batean produktuen edo sistemen soluzio berritzaileak garatzea. Ikasle-talde bakoitzak bere eraikinaren energia-eraginkortasuna hobetzeko ideia bat garatu zuen, eta nazioarteko epaimahai bati aurkeztu zion, bideo batean.

Energyducation "Exploring "Smart Energy Management" Erasmus + programaren europar proiektu bat da, eta bere helburua da energiaren kudeaketa adimendunarekin zerikusia duten arlo tekniko ezberdinetan material didaktikoa sortzea.

Además de implementar el modulo online desarrollado en 2019, se elaboró un manual para el profesorado sobre cómo implementar el método de aprendizaje basado en retos, que se entiende como un proceso evolutivo, donde los estudiantes son protagonistas y responsables de su camino al logro de competencias.

En 2020 se realizó también un concurso entre el alumnado de las diferentes escuelas socias. El reto consistió en desarrollar soluciones innovadoras de productos o sistemas en un edificio escolar utilizando técnicas de Smart Energy. Cada grupo de estudiantes desarrolló una idea de mejora de la eficiencia energética de su edificio y la presentó a través de un video a un jurado internacional.

Energyducation "Exploring "Smart Energy Management" es un proyecto europeo del programa Erasmus +, que tiene como objetivo generar material didáctico en diferentes campos técnicos relacionados con la gestión inteligente de la energía.



ZubiGune Fundazioak eta Usurbilgo LHII ikastetxeak (liderra) hartzen dute parte Energyducation proiektuan, beste bost bazkideekin batera: Münster School of Vocational Education (Alemania), Alfa-College (Holanda), Lulea Kommun (Suedia), NTIM (Norvegia) eta Myclimate (Suitza).

En Energyducation participan ZubiGune Fundazioa y el CIFP Usurbil LHII (líder) junto a otros cinco socios: Münster School of Vocational Education (Alemania), Alfa-College (Holanda), Lulea Kommun (Suecia), NTIM (Noruega) y Myclimate (Suiza).

ZUBILAN

ZubiLan proiektuak eginkizun garrantzitsua betetzen du Usurbil LHII ikasleak mundu profesionalera hurbiltzen, enpresetan benetako praktikak egiteko aukera ematen baitie, eta horrek lan-merkatuaren dinamikara egokitzen laguntzen die.

Ezagupen tekniko gehiago berenganatzeaz eta alderdi produktiboak hobeto ezagutzeaz gain, bestelako gaitasunak ere garatzen dituzte ikasleek, hala nola: taldeko lana, puntualtasuna, antolakuntza, konpromisoa, etab.

Honako lan hauek egin dira 2020an:

El proyecto ZubiLan juega un papel muy importante en el acercamiento al mundo profesional de los alumnos del CIFP Usurbil LHII, pues proporciona la oportunidad de realizar prácticas reales en empresas que les ayuden a adaptarse a la dinámica del mercado laboral.

Además de ampliar los conocimientos técnicos y los aspectos productivos, se trata de desarrollar en los alumnos capacidades tales como: trabajo en equipo, puntualidad, organización, compromiso, etc.

A lo largo de 2020 se han realizado los siguientes trabajos:



CAE · Aplikazio Elektronikoen Saltzailea

CAE-Fidegas enpresarekin lortutako hitzarmenaren bitartez, Usurbilgo LHII ikastetxeko Fabrikazio Mekanikoko 8 ikaslek egin zituzten praktikak, 354 ordu guztira.

Praktika mota: Gas toxikoan antzemateko urrutiko sentso-reetarako aluminiozko zorroen fabrikazioa.

2020ko ekoizpena: 3.255 zorro.

BTG

BTG Spain enpresarekin egindako hitzarmenari esker, Usurbilgo LHII ikastetxeko Elektrizitateko eta Elektronikako 8 ikaslek egin zituzten praktikak, 1.541 ordu guztira.

Praktika mota: Transponderren fabrikazioa (enkaputxatzea, soldatzea, neurtzea, pieza muntatzea, amaierako ikuskapena, paketatzea eta bidaltzea).

2020ko ekoizpena: 139.600 transponder

CAE · Comercial de Aplicaciones Electrónicas

Mediante el acuerdo con CAE-Fidegas, se realizaron un total de 354 horas de prácticas, en las que participaron 8 alumnos de Fabricación Mecánica del CIFP Usurbil LHII.

Tipo de práctica: Fabricación de casquillos de aluminio para sensores remotos de detección de gases tóxicos.

Producción 2020: 3.255 casquillos.

BTG

Mediante el acuerdo con BTG Spain, se realizaron 1.541 horas de prácticas en las que participaron 8 alumnos de Electricidad y Electrónica del CIFP Usurbil LHII.

Tipo de práctica: Fabricación de transpondedores (encapuchado, soldadura, medición, ensamblaje de la pieza, inspección final, embalaje y envío).

Producción 2020: 139.600 transpondedores.



LANKIDETZA-HITZARMENA, GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIKO INGURUMEN ETA LAN HIDRAULIKOEN DEPARTAMENTUAREKIN

Convenio de Colaboración con el Departamento de Medio Ambiente y Obras Hidráulicas de la Diputación Foral de Gipuzkoa

2020an, Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumen eta Lan Hidraulikoen Departamentuaren eta Usurbilgo Lanbide Heziketako Ikastetxe Bateratuaren arteko Lankidetza-hitzarmenaren kudeaketa-lanetan parte hartu zuen, energia-aurrezpenaren eta -eraginkortasunaren eta energia berriztagarrien arloetan trebatzeko, horien zabalkundea egiteko eta sentsibilizatzeko.

Horretarako, jarraian xehatzen diren jarduketak jarri ziren abian.

Prestakuntza

Egindako ikastaroak herri administrazio teknikariei zuzenduta zeuden batez ere, EAEko Energia Jasangarritasunari buruzko otsailaren 21eko 4/2019 Legea betetzeko dauden betebeharrak uler ditzaten eta horretarako irizpide teknikoak izan ditzaten.

Osasun-egoeraren ondoriozko murrizketak direla eta, ikasgela birtualeko formatuan egin ziren saio guztiak.

En 2020 ZubiGune Fundazioa participó en las tareas de gestión del Convenio de colaboración entre el Departamento de Medio Ambiente y Obras Hidráulicas de la Diputación Foral de Gipuzkoa y el Centro Integrado de Formación Profesional Usurbil, para la formación, divulgación y sensibilización en materia de ahorro y eficiencia energética y en energías renovables.

Para ello se pusieron en marcha las diferentes actuaciones que se detallan a continuación.

Formación

Los cursos impartidos estaban destinados principalmente a técnicos de la administración pública para facilitar la comprensión de las obligaciones, así como para aportar los criterios técnicos, a la hora de abordar el cumplimiento de la Ley 4/2019, de 21 de febrero, de Sostenibilidad Energética en la Comunidad Autónoma Vasca.

Debido a las restricciones, todas las formaciones se desarrollaron en formato de aula virtual.

Prestakuntza Formación	Hasiera-data Fecha inicio	Amaiera-data Fecha fin	Orduak Horas	Ikasleak Alumnos
1. Blokea - Energia Kudeaketa - 1. Edizioa Bloque 1 - Gestión Energética - 1º Edición	06/07/2020	14/07/2020	10	15
1. Blokea - Energia Kudeaketa - 2. Edizioa Bloque 1 - Gestión Energética - 2º Edición	20/07/2020	28/07/2020	10	15
2. Blokea - Energia Berriztagarriak eraikinetan - 1. Edizioa Bloque 2 - EERR Edificios - 1º Edición	28/10/2020	03/11/2020	10	7
2. Blokea - Energia Berriztagarriak eraikinetan - 2. Edizioa Bloque 2 - EERR Edificios - 2º Edición	11/11/2020	16/11/2020	10	7
3. Blokea - Eraikinen eraginkortasuna - 1. Edizioa Bloque 3 - Eficiencia Edificios - 1º Edición	18/10/2020	23/11/2020	10	9
3. Blokea - Eraikinen eraginkortasuna - 2. Edizioa Bloque 3 - Eficiencia Edificios - 2º Edición	24/11/2020	27/11/2020	10	13
4. Blokea - Ibilgailu alternatiboak - 1. Edizioa Bloque 4 - Vehículos alternativos - 1º Edición	06/11/2020	07/11/2020	5	13

Jardunaldiak

Jardunaldion helburu orokorra izan da ezagutza teknikoaren zabalkundea egitea, batez ere enpresa txiki eta ertainen, enpresa handien eta erakunde publikoen artean, haien eguneroko jardunean eragina izan dezaten.

Murrizketak direla eta, jardunaldi bakarrean antolatu zen ekitaldi honetan.

Jornadas

El objetivo general de estas jornadas es la divulgación del conocimiento técnico principalmente a PYMEs, grandes empresas y entidades públicas, con el fin de que tenga repercusión en su actividad diaria.

Debido a las restricciones, en este ejercicio se organizó una jornada.

ID	Jardunaldiaren izena Denominación de la jornada	Orduak Horas	Datak Fechas	Edizioa Edición	Beraratutakoak Asistentes
1	Bero-ponpak <i>Bombas de calor</i>	3,5	Azaroak 30 <i>30 de noviembre</i>	1ª	60



Tailerrak

Gipuzkoa Argitu programaren barruan, 2020an elektromugikortasunari buruzko sei tailer antolatu ziren, oro har herritarrei zuzenduta.

18:00etatik 19:30era, ordu eta erdiko iraupena izan zuen tailer bakoitzak, eta hainbat udaletxetako aretoetan egin ziren.

Talleres

Como parte del programa Gipuzkoa Argitu, en 2020 se organizaron 6 talleres sobre electro movilidad, dirigidos a la ciudadanía en general.

En horario de 18:00 a 19:30, cada taller tuvo una duración de 1,5 horas y se desarrollaron en salones de distintos ayuntamientos.

Non Lugar	Data Fecha
Astigarraga	Irailak 17 / 17 septiembre
Irun	Irailak 22 / 22 septiembre
Ordizia	Irailak 24 / 24 septiembre
Legazpi	Irailak 28 / 28 septiembre
Zumarraga	Irailak 29 / 29 septiembre
Berastegi	Urriak 1 / 1 octubre



ZTBES SAREAN

Incorporación a la RVCTI

2020an, ZubiGunek Elkartek deialdiko 4.0 Eraikuntza sektorea digitalizatzeko teknologiak eta konponbideak (TDCOM 4.0) proiektuaren zati batzuen koordinazioan eta garapenean parte hartu zuen; Sabico Labs, IMH eta Euskal Herriko Unibertsitateak ere hartu zuten parte egitasmo horretan.

Eraikuntzaren sektorearen eraldaketa digitalera bideratuta dago proiektu hori, eta ZubiGunek, proiektuaren sustatzaileetako bat den arren, hornitzaile gisa hartu zuen parte, ez baita Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sareko kidea.

1997ko apirilaren 29an sortu zen Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sarea (ZTBES); ikerkuntza, garapen eta berrikuntzako erakunde-multzo batek osatzen du sare hori eta, sarean lan eginda, I+G+b-ko jardura-mix orekatu bat garatzen dute, Euskadin aberastasuna eta ongizatea sortzen laguntzen duen ikerkuntza espezializatua eta bikaina gauzatuz.

Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sareko eragileak dira Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sistemaren muina, eta gainerako eragileekiko lankidetzarako eta koordinaziorako konpromisoz jardun behar dute, EAEn dagoen gaitasuna optimizatzeko helburuz.

ZTBES sareko kideei soilik zuzendutako proiektuetan parte hartu ahal izateko, sarean sartzeko eskaera egin zuen ZubiGunek. 2020an onartu zuten eskaera, eta Eskaintza eta Eskari arteko Bitartekaritza Eragile da orain; hona hemen figura horren definizioa:

“Eskaintza eta Eskari arteko Bitartekaritza Eragileak dira enpresen eskaintza teknologikoaren eta eskari teknologikoaren (Enpresa Txiki eta Ertainen kasuan batez ere) arteko bitartekaritza-lanak egiten dituzten erakundeak, I+G-aren balio-kate osoan”.

En 2020 ZubiGune participó en la coordinación y el desarrollo de algunas de las partes del proyecto Tecnologías y soluciones para la digitalización del sector de la construcción 4.0 (TDCOM 4.0) de la convocatoria Elkartek, en el que también participaron Sabico Labs, IMH y la UPV.

En este proyecto, orientado a la transformación digital en el sector de la construcción, ZubiGune, pese a ser uno de los promotores del mismo, participó como proveedor por no formar parte de la Red Vasca de Ciencia Tecnología e Innovación.

La Red Vasca de Ciencia, Tecnología e Innovación (RVCTI), creada el 29 de abril de 1997, es un conjunto de entidades de investigación, desarrollo e innovación que, trabajando en red, desarrollan un mix de actividad de I+D+i equilibrado, realizando una investigación especializada y excelente que contribuye a la creación de riqueza y bienestar en Euskadi.

Los agentes de la Red Vasca de Ciencia, Tecnología e Innovación, constituyen el núcleo principal del Sistema Vasco de Ciencia, Tecnología e Innovación, los cuales deben actuar desde el compromiso de colaboración y coordinación con el resto de agentes para optimizar las capacidades existentes en la CAE.

Para poder optar a proyectos dirigidos exclusivamente a los miembros de la RVCTI, ZubiGune solicitó y se aprobó su incorporación en 2020 a dicha red como Agente de Intermediación oferta demanda, cuya definición es: “Los Agentes de Intermediación oferta-demanda son entidades que realizan labores de intermediación entre la oferta tecnológica y la demanda tecnológica empresarial (especialmente de PYMEs) a lo largo de toda la cadena de valor de la I+D.”



03

GOBERNU-ORGANOAK Órganos de gobierno



PATRONATUA

Patronato

Presidentea / *Presidente*: Patxi Vaquerizo

Presidenteordea / *Vice-Presidente*: Jesús María Gómez (INSTAGI)

Bokala / *Vocal*: Ana Ugalde (Cámara de Gipuzkoa)

Bokala / *Vocal*: Mikel Sarriegi (ADEGI)

Bokala / *Vocal*: Daniel Castander (DOMUSA)

Bokala / *Vocal*: Iñaki Mujika

ENTITATE ERATZAILEAK

Entidades Constituyentes

ADEGI

AFM Advanced
Manufacturing
Technologies

AKABA
Motion and Emotion

AlecopGroup
Knowledge & Technology

BREEN
BREDDED IN GREEN

fg
fidegas

CAMARA DE GIPUZKOA
GIPUZKOAKO BAZKUNDEA

Servicio de Prevención
Ad. An. Nº SP-4510-SC

COGITI
Gipuzkoa

DOMUSA
TEKNIK

REXEL

FAGOR confort

GISAT
APPLE | SERVICIOS TECNOLÓGICOS ESPECIALIZADOS

Instagi

Laser KEN

FAGOR
V. Luzuriaga - Uurbil, S.A.

LARRAÑAGA PLÁSTICOS S.A.
LP

LKS **ROSPEKTIKER**

SETALDE
www.setalde.com

Syder

tecnalia Inspiring
Business

KOLABORATZAILEAK

Colaboran

USURBILGO LANBIDE ESKOLA
CIFP USURBIL LHI

gizart kutxa
Zugandik Zugana

Tknika
LANBIDE HEZIKETARANO BERRIKUNTZA ZENTROA
CENTRO DE INNOVACIÓN PARA LA FORMACIÓN PROFESIONAL

VENTANA
aerospace & defence

EAGI
LHI ERANIK ADIMENDIEN GARAPEN ERAGUNTZA
CIFP DESARROLLO SOSTENIBLE EN EDUCACIÓN INTELIGENTE

Garen
Asociación de Empresarios
Empresarial Ekartea

www.zubigune.org
info@zubigune.org
943 562 061